

## Informazio sistema egoki eta sendoa eta ezagutza aditua

Osasunaren inguruko informazio sistemak beharrezkoak dira denboraren, lekuaren eta pertsonaren arabera joerak behatzeko ezagutza gisa. Horrela, aldaketak behatu edo aurreratu daitezke, ekintza egokiak eta sortutako osasun arazoentzako dagozkion kontrol neurriak ezartzeko.

Biztanleriaren osasun egoeraren ebaluazioa ezinbesteko tresna da osasun publikoko politikak garatzeko orduan, ikerketa epidemiologikotik deduzitutako ebidentziekin bat datozen ohitura osasungarriak sustatzeko. Denboran zehar aldian behin errepikatzeak aztertutako parametroen joera ikusteko, biztanleriarentzat ezarritako helburuak bete diren edo ez jakiteko eta osasuna sustatzeko egindako kanpainen eraginkortasuna aztertze modua ematen du.

### 1. PROIEKTUA AKTIBOEN MAPA

Dela euren jardura pertsonen osasunarekin eta elikadurarekin zuzenean lotuta dagoelako, edo biztanleriaren jokaerak hobetzen laguntzen duten ekimenak abian jarri dituztelako, Euskadiko hainbat eragilek nolabaiteko eragina dute pertsonen elikadura ohituretan.

Elikadura-osasunerako aktiboak (osasunarekin eta osasuna sortzen duten ekintzekin konprometitutako eragileak) nabarmendu eta ikusgarri egiteko geolokalizazio plataforma eta tresnak erabiltzea proposatzen da programaren beharrei erantzuteko.

#### Helburu nagusiak

- Elikaduraren arloko zerbitzu eta ekimenak bisibilizatzea, biztanleriari begira.
- Erakundeen lanean harremanen kudeaketa eta erabaki-hartzea erraztea.

## 2. PROIEKTUA

### INFORMAZIO ITURRI EGOKIAK

Norabide zuzenean goazen edo egokitu beharreko alderdiak dauden aztertze beharrezkoa da hitzartutako helburuei egokitutako ad hoc adierazleak jartzea, batez ere fruta eta barazkien, eta gatz, gantz eta azukreen kontsumoan zentratuta. Alde horretatik, Euskadiko informazio-iturri funtsezkoetako bat indartzeko aukera planteatzen da, Euskadiko Osasun Inkesta, ezagutza hori lortzen lagun diezagun.

Osasun Inkestak oso informazio baliagarria eskaintzen du osasun politiken inguruko erabakiak hartzeko. Biztanleriaren osasun orokorraren bilakaeraren, horren baldintzatzaileen, eta pertsonen

Euskadiko osasun zerbitzuak erabiltzeko moduaren inguruko datuak jasotzen ditu.

Inkesta ekimen programaren euskarri izan dadin eguneratzeko, ondorengo hauek biltzen dituen sail arteko ekintza bat proposatzen da:

1. Inkestari erantsi beharreko galderak diseinatu berau egiten duten Eusko Jaurlaritzako talde profesionalarekin elkarlanean.
2. Inkesta gauzatu, datuak aztertu eta emaitzak argitaratu.
3. Inkestaren aldizkako berrikuskatze eta aktualizazioa.
4. Aurreko pausuen osagarri gisa, azkenik beharrezkoa dela eraba-

kitzen bada, elkarlanerako hitzarmenak sinatzea proposatzen da interesgarri izan daitezkeen beste erakunde eta organizazioekin.

#### Helburu nagusiak

- Inkestaren gaurkotze prozesua aprobeztatzea programaren baitan martxan jarritako ekintzen ebaluazioa ahalbidetuko duten galderak sartzeko.
- Baliozko informazio kanal berri bat gehitzea.

